



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2008ko abenduaren 10a

108. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, 2009ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa. Osoko Bilkurak bazter utzi ditu osoko zuzenketak (3. or.).
- Foru Lege proiektua, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa. Osoko Bilkurak bazter utzi ditu osoko zuzenketak (3. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Emakumeari Laguntzeko Zentro Integralak Garatzekoa, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (4. or.).
- Foru Lege proposamena, Bide Publikoak Bizikletek Erabiltzeko Egokitzeari buruzkoa, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak (7. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lehentasunez jar ditzan abian eta Osasunari buruzko Plan Estrategikoan sar ditzan Nafarroako Odol-transfusioen eta Zelulen eta Ehunen Zentroa ize-neko fiskalizazio txostenean Comptos Ganberak eginiko gomendioak. Ana Figueras Castellano andreak aurkeztu du (11. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gaueko aisiako lokaletako atezainen jarduna arautzeko foru lege proiektu bat aurkez dezan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (12. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da espetxe erakundeekiko hitzarmen baten bidez berma dezan mediku psikiatra bat egotea Iruñeko espetxean, buruko gaixotasuna duten presoak artatze aldera. Ana Figueras Castellano andreak aurkeztu du (13. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da urte bakoitzeko martxoaren 31 baino lehen egin daitezzen Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuaren deialdi guztiak, baldin

- eta instituzio, erakunde edo pertsonak ukitzen badituzte. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (15. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jarduketa protokolo bat sor dezan, osasun arloko profesionalen erasoak jasaten dituztenerako. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (16. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berehala egin dezan eskola garraiorako eta jantokirako beken deialdia, hizkuntza eredia dela-eta joan-etorrian ibili behar dutenentzat. Hezkuntza Batzordeak onetsia (17. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hizkuntza desberdinetan idatz ditzan Arellanoko villa erromatarreko interpretazio zentroan bisitarien eskura jartzen diren informazio guztiak, bai eta Nafarroako eskaintza turistikoan sartuko diren guztiak ere. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordeak bazter utzia (17. or.).
- Adierazpen instituzionala, Hiesaren Kontrako Nazioarteko Eguna dela-eta. Eledunen Batzarrak onetsia (18. or.).
- “Eskubide guztiak pertsona guztientzat: konpromisoa berritzea” adierazpen instituzionala, Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren 60. urteurrena dela eta. Eledunen Batzarrak onetsia (18. or.).
- Adierazpen instituzionala, Ignacio Uria Mendizabal enpresaburu azpeitiarraren erailketa gaitzesteko. Eledunen Batzarrak onetsia (19. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, jakiteko ea nor ordainduko dituen Martzillako gaztelua zaharberritzeko obrak, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (20. or.).
- Galdera, NA-6900 errepideko eta NA-6710 errepideko tarte jakin batzuk asfaltatze aldera betetako gas-tuari buruzkoa eta gastua zer kontusaili egotzi zaion jakitekoa, José María Vázquez Royo jaunak egina (20. or.).
- Galdera, Leitzako Maxurrenea etxeari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (21. or.).
- Galdera, jakiteko ea zergatik gelditu den Sunbillako Udala bigarren urtez jarraian abeltzaintzako toki azpi-egiturak hobetzeko dirulaguntzetatik kanpo, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (22. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, 2009ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZI DITU OSOKO ZUZENKETAK

Nafarroako Parlamentuak, 2008ko azaroaren 27an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen bazter uztea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak eta Izquierda Unida de Navarra-Nafarroa Ezker Batua Foru Parlamentarien Elkarteak 2009ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketak.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 131.5 artikuluan ezarritakoarekin bat, aipatu proiektua Ekonomia eta Ogasun Batzordera igorri da.

Iruñean, 2008ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Foru Lege proiektua, zenbait zerga aldatu eta beste tributuei neurri batzuk hartzekoa.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZI DITU OSOKO ZUZENKETAK

Nafarroako Parlamentuak, 2008ko azaroaren 27an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen bazter uztea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak eta Izquierda Unida de Navarra-Nafarroa Ezker Batua Foru Parlamentarien Elkarteak zenbait zerga aldatu eta beste tributuei neurri batzuk hartzeko Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketak.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 131.5 artikuluan ezarritakoarekin bat, aipatu proiektua Ekonomia eta Ogasun Batzordera igorri da.

Iruñean, 2008ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Emakumeari Laguntzeko Zentro Integralak Garatzekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko abenduaren 1ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak Emakumeari Laguntzeko Zentro Integralak Garatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Emakumeari Laguntzeko Zentro Integralak Garatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2008ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Emakumeari Laguntzeko Zentro Integralak Garatzeko Foru Lege proposamena

Bai Indarkeria Sexistaren Aurkako Neurri Integralak Hartzeari buruzko uztailaren 2ko 22/2002 Foru Legea, bai Generoko Indarkeriaren Aurkako Babes Integraleko Neurriei buruzko 1/2004 Lege Organikoa onetsi izana erakundeek gizarte osoan eragina duen arazo bat deuseztatzeko egindako ahalegin normatiboaren erakusgarria da.

Argi dago indarkeria sexistaren arazoa konplexua dela; are gehiago kontuan hartzen badugu askotan arazoaren alde muturrekoena edo ikusgarriena baizik ez dugula ikusten, eraso fisikoa hain zuzen.

Ikuspegi konplexu horrek jartzen gaitu Nafarroan generoko indarkeria deitzen dugun hori pairatzen duten pertsonen arreta integral bat ematearen alde. Izan ere, giza eskubide oinarrikoen aurka egiten duen indarkeria bat da: bizitzarako eskubidea, osotasun pertsonalerako eskubidea, askatasunerako eskubidea eta bakean bizi ahal izateko eskubidea. Eta auzitan jartzen ditu gure bizikidetasunaren oinarrian dauden funtsezko balio moralak.

Datuek erakusten dute arazo oso larri baten aurrean gaudela, dauzkan dimentsioengatik eta sortzen direneko esparru pribatuengatik, eta arazo horrek eragina duela familiako harremanetan zein bikoteko harremanetan, Izan ere, aipatu bi harreman-esparru horiek oso ere garrantzitsuak dira pertsonen sentimenduetarako, afektuetarako eta segurtasunerako. Horrenbestez, gizarte osoan eragina duen arazo bat da, eta gizartearen inplikazioarekin eman lekioko konponbidea.

Argi dago, horri dagokionez, egin beharreko lehenbiziko gauza dela babes-baliabideak bermatzea Nafarroan gertatzen diren generoko indarkeriako arazo larrietarako; hau da, emakumeen bizitza arriskuan dagoen kasuetarako. Garrantzitsua da gaur eskura dauden baliabideak eskatzen dituzten emakumeen beharrei neurria erantzutea, eta aldi berean bereiztea edo graduatzea tratatu txar mota desberdinak, haien larritasuna, iraupena, erasotako pertsonarengan eragindako endekatze fisiko eta psikologikoa. Zeren eta ez baitituzten eragin berak, eta ezin dute tratamendu bera izan. Eta laguntza integral batek programa oso desberdinak eduki beharko ditu errealitate desberdin horiei erantzuna emateko.

Funtsezkoa da gazteekin lan egitea, prebentzio eta heziketa sozialeko programen bitartez, sozializazio zailtasun arinak atzematen diren jokabideak eta jarrerak berriz hezteko lanetan. Gainera, lan egiten jarraitu behar dugu emakumeen autonomia indartzeko. Haiei berriz hezteko babesa eman behar zaie berrezteko, laguntzeko eta bitartekari-tzak praktikak erabiliz.

Horrenbestez, kausa anitzen ikuspegiak presente egon behar du Nafarroan indarkeria sexistaren aurkako politikak ezartzeko garaian, eta presente egon behar du, era berean, laguntza integralean. Ikuspegi hori dela eta, gatazkan modu egokiagoan esku har daiteke. Gaizkia ez da gizonezkoengan fokalizatzen, gizonezkoen ezaugarri bat balitz bezala. Ikusarazten du gehien bat gizonezkoen jokabide bat dela, zerikusia duena maskulinitasun tradizional eta matxistarekin, bai eta beste baldintza sozial batzuekin eta gizabanako horien berezitasunekin ere.

Hobeki bereizi behar da legeetan jasotako indarkeria, zeren eta "tratu txarretik" "elkar ongi ez tratatzera" tarte handia baitago, eta tarte horretan abusuzko harremanen eta harreman endekatuen aukera zabala dago; harreman horiek, izan ere, gizartearen ikuspuntutik gaitzesgarriak dira, baina esku hartzeko estrategia desberdinak eskatzen dituzte. Esku-hartze penala gehiegi garatu da, beste arlo batzuetako esku hartzeen aldean eta legeak jasotzeko beste baliabide batzuen aldean, eta horietan aplikatzea da gure xedea, hiru jarduketan ardatz oinarri hartuta: gatazkari konponbidea ematean herritarren prebentzioa eta inplikazioa lehenestea, lagun eginez, berriz hezi daitezkeen indarkeriazko jokabideak atzemanen eta emakumeen autonomia sendotuz; gatazka desaktibatze mekanismoei lehentasuna ematea, gizarte neurriak aurretiaz jarrita; eta, azkenik, bide penalera jotzea.

Erabil daitezkeen baliabideen aukera handitu beharra dago (bereziki, zigorrez bestelakoak), tratu txarren inguruabarren eta kasuen aniztasunari erantzuna emateko, eta bermatu beharra dago behar duten emakume guztiek baliabide sozio-ekonomikoak eskuratu ahalko dituztela.

Emakumeari laguntzeko zentro integrala, horrenbestez, antolamenduzko egitura oinarritzkoa izanen da, pertsonen arteko harremanetan sorturiko arazoari aurre egiteko behar diren baliabideak batera bilduko dituen, eta indarkeriazko egoeren aurretik behar diren mekanismoak eskainiko dituen prebentzioaren, atzematearen eta berriz heztearen arloan. Horretaz gainera, dauden baliabideak koordinatu eta haien buruz informatuko du, generoko indarkeriako egoeretan.

Horri dagokionez, emakumeari laguntzeko zentro integralak bere zeregina tratu txarren prozesuan gure ustez kontuan hartu beharreko fase guztietan finkatu behar du. Hori dela eta, lege honek, anbizioz eta zehaztasunez, emakumeari laguntzeko politikaren antolamenduan, adierazi bezala, oinarritzkoa den baliabide baten eginkizunak garatu nahi ditu, Indarkeria Sexistaren Aurkako Neurri

Integralak Hartzeari buruzko martxoaren 7ko 12/2003 Foru Legeko 9.bis artikuluan ezarritakoaz haratago.

Lehenbizi, aurrea hartu behar zaie etorkizuneko pertsonen arteko harremanetan errespetuzkoak ez diren jarrerak sor ditzaketen jokabideei. Lehendabiziko fase horretan, jokabideen, sentipenen eta jarreraren gainean lan egiteko programak jarri behar dira abian; azken batean, pertsonen arteko harremanak direla eta, berdintasunezko balioetan hezte. Bigarren fase batean, tratu txarrik egon gabe ere elkar ongi tratatzen ez duten pertsonen arteko harremanak atzematen direnean, berriz hezteak, laguntzak eta balioetako hezkuntzak beren esanahia aurkitzen dute, ideia eta kontzepzio matxistei eta emakumeak menderatzean oinarrituriko ideiei aurre egiteko. Eta, azkenik, zentro integralaren funtzio nagusietako bat da indarkeria-gertaera baten ondorengo egoerei aurre egiteko esparru desberdinetatik eskaintzen diren neurriak koordinatzeko zentroa izatea.

Kasu honetan, zehaztu beharra dago helburua dela azpimarra jartzea prebentzio-lanerako programa bat sortzeko premian. Kausen aniztasunean oinarrituriko ikuspegi bat da interesatzen zaiguna, ikuspegi konplexua eta epe luzean plano guztietan esku hartuko duena.

1. artikulua. Definizioa

Emakumeari laguntzeko zentro integralak oinarritzko egitura bat izanen dira, pertsonen arteko harremanetako arazoari aurre egiteko behar diren baliabide guztiak batera bilduko dituen. Zentroek behar diren mekanismoak eskaini behar dituzte indarkeriazko egoeren aurretiko prebentzioaren, atzematearen eta berriz heztearen arloan. Gainera, ardurak hartzeaz gainera, berariazko baliabideak ziurtatu behar zaizkie generoko indarkeriako egoerak gertatzen direnean haien ondorioak pairatzen dituztenei, bai eta bizitzaren edozein arlotan generoko indarkeria pairatzeko arriskua dutenei ere.

2. artikulua. Onuradunak

a) Nafarroan bizi diren edo dauden pertsonak, edozein dela ere haien egoera administratiboa.

b) Baliabide hau erabiltzeko, ez da beharrezkoa izan eraso-egilearen aurkako salaketarik jartzea.

3. artikulua. Helburuak

1. Etorkizunean pertsonen arteko harremanetan jarrera mingarriak sor ditzaketen jokabideei aurrea hartzea, eragiten dituzten jokabide, generoko sentimendu eta jarreraren gainean lan eginez.

2. Berriz hezteko modukoak diren indarkeriazko jokabideei atzematea.

3. Tratu txarren egoerak gertatu diren kasuetan laguntza ematea. Emakumeak kanpoko esku-hartzearen subjektua, eta ez soilik objektua, direnean; betiere, haien autonomia eta erabaki-ahalmena hartuko da kontuan, bai eta emakumeen eta tratu txarren inguruabarren aniztasuna ere.

4. artikulua. Prestazioak

Honakoak dira zentroek bermatu beharreko gutxieneko prestazioak:

1. Babes soziala bermatzea.
2. Laguntza psikologikoa ematea.
3. Biktimei informazioa ematea 1/2004 Lege Organikoan eta martxoaren 7ko 12/2003 Foru Legean zehaztutako neurriei buruz.
4. Familia unitatearentzako hezkuntza-babesa bermatzea.
5. Lagun egiteko eta abegi egiteko protokoloak diseinatzea.
6. Prestakuntza eta laneratzea babestea.
7. Tratu txarra hasten den edo hura pairatzeko arriskua dagoen egoeretan esku hartzea.
8. Erasotako pertsonaren guraso ahalaren edo zaintzaren menpean dauden adingabeei laguntza psikosoziala ematea.
9. Beste erakunde edo kolektibo batzuek abian jartzen dituzten jarduerak koordinatzea.

5. artikulua. Prebentzioa

Prebentzioa eta balioetan hezteko zentro hauen funtsezko helburua dira. Horretarako, entitate sozialekin eta hezkuntza arokoekin batera, balioetan hezteko programak egiten dira, populazioko sektore jakin batzuei zuzenduak; esate baterako, gazteei edo bereziki zaurgarriak diren emakumeen kolektiboak. Programa horiek azpimarra berezia jarri beharko dute pertsonen arteko harremanen oinarrian jarri beharreko balio eta irizpideetan; esate baterako, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, autonomia pertsonala, gure bizitzari buruz baldintza sexistarik gabe erabakitzeko askatasuna, erantzukizuna... Gainera, programetan laguntza emanen da bizitzan azaleratu ohi diren sentimenduak eta gatazkek kudeatzeko gaitasun pertsonalak garatzeko.

6. artikulua. Langileak

Lantaldeak diziplina anitzekoa izateko borondate argia izanen du, eta honakoak koordinatuko duen sare baten buruan egon beharko du: entitate-

ak eta ikastetxeak, oinarrizko gizarte zerbitzuak, berariazko osasun laguntza oinarrizkoa, osasun etxeak, adingabeentzako laguntza zerbitzuak, emakumeari laguntzeko berariazko zentroak, tratu txarrekin loturiko jokabideak berri hezteko zentroak. Egokitzat jotzen diren beste zerbitzu batzuk gorabehera, lantaldeak honakoak izanen ditu, gehienez ere: administrariak, gizarte-langile bat, hezitzaile bat, psikologo bat, bitartekaritzarako prestatutako pertsonak eta abokatu bat.

7. artikulua. Ezaugarriak

1. Gizarte zerbitzuen arlo guztiek gutxienez ere emakumeari laguntze zentro integral bat edukiko dute. Zentro integralak antolatu eta finantzatzeko, udalen eta gobernuen arteko hitzarmenak aztertu eta egiten dira, zerbitzuaren kontrol publikoaren menpeko laguntza bat bermatzeko.

2. Emakumeari laguntzeko zentroek goiz eta arratsaldeko ordutegian egiten dute lan publikoarekin, astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 20:00etara.

3. Emakumeari laguntzeko zentroak lankidetzan estuan arituko dira gizarte zerbitzuekin, osasun zerbitzuekin, eskola orientazioko zerbitzuekin eta larrialdietarako eta herritarren segurtasunerako zerbitzuekin, indarkeria-egoerak atzeman eta haiei aurrea hartzeko.

4. Zentroak bere lana egiteko behar dituen bitarteko tekniko eta ekonomikoak izanen ditu.

5. Gazteentzako erreferentzia zentroa sortuko du, laguntza integralaren barruan gazteei laguntza emateko pertsonen arteko harremanetan dauzkaten arazoetan; zentroak apustua egiten du honakoetarako tresnak eskaintzeko: gatazkei konponbidea ematea; emozioak edo frustrazioa, jelsiak, porrota, harreman afektibo eta sexualetako arazak bezalako sentimenduak ezagutu eta kudeatzea. Zentroak, halaber, behar diren tresnak eskainiko ditu modu boluntarioan joaten diren gazteen edo prebentzio-faseko laguntzatik heldu direnen autoestimua sendotzeko.

Lehenengo xedapen iragankorra

Foru lege hau argitara eman eta bi hileko epean, Nafarroako Gobernuak zentro horiek zabaltzeko plan bat idatziko du, eta ziurtatuko du 2009rako lege honetan aurreikusitako zentroak abian jartzeko prozedura administratiboak egiten hasiak izatea, gutxienez ere. Halaber, lege honek indarra hartzen duen unean lanean ari diren zentro integralak arau hauetan ezarritakoari egokitu beharko zaizkio.

Bigarren xedapen iragankorra

Zehaztutako hiru faseetan emakumeari laguntzeko proposamen teknikoa egite aldera, hiru hileko epean batzorde bat osatuko da. Honakoek osatuko dute batzordea: Nafarroako Gobernuak eta gizarte zerbitzuen arloetako teknikariek eta bikote harreman gatazkatsuen arloko prebentzioaren eta

konponbideen arloko elkarteek. Batzorde horren eginkizunetan sartuko da, halaber, abian diren programetako eta tratu txarraren prebentzioan zentratutako neurrietako emaitzen ebaluazioa.

Azken xedapena

Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.

Foru Lege proposamena, Bide Publikoak Bizikletek Erabiltzeko Egokitzeari buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko abenduaren 1ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak Bide Publikoak Bizikletek Erabiltzeko Egokitzeari buruzko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Bide Publikoak Bizikletek Erabiltzeko Egokitzeari buruzko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2008ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Bide Publikoak Bizikletek Erabiltzeko Egokitzeari buruzko Foru Lege proposamena

ZIOEN AZALPENA

Gaur egun onarturik dago bizikleta garraiobide eraginkorra dela eta hautabide bideragarri bat dela pertsona askorentzat, hain zuzen ere euren jarreraren bidez laguntzen dutenentzat hiriko ingurumena hobetzen eta bitarteko motordunen bidezko pertsonen garraiobideari lotutako emisio kutsa-

garriak murrizten. Europar Batasunean, foro eta agiri askotan gomendatzen da garraiorako eta aisiarako bitarteko gisa gara daitezela bizikletaren erabilera sustatzeko politikak, eta politika horiek, gaur egun, ingurumenaren iraunkortasuna bilatzen duen garraio arloko edozein politika orokorren parte ezinbestekotzat jotzen dira.

Halere, ibilgailu pribatuen trafiko gero eta handiagoak eragindako beharrezan baldintzatu dute batik bat bide publikoen eitea, eta, ondorioz, bide publikoak gero eta arriskutsuagoak bihurtu dira motorrik gabeko garraiobideen erabiltzaileentzako, eta horien artean txirrindularientzako. Ez dago lege-mailako araurik bide publikoen eiteari buruzko araudia bizikleten erabiltzaileen beharrezan berariazkoetara egokitzeko, eta gabezia horrek diskriminazio larria sortzen die erabiltzaile horiei.

Foru lege hau, beraz, lege hutsune hori betetzera dator, bide publikoen eiteari buruzko arauak bizikleten erabiltzaileen beharrezan berariazkoetara egokitzeaz denaz bezainbatean. Egokitze hori beharrezkoa eta premiazkoa da, ez soilik ingurumenaren arloan lehen mailako helburua delako bizikletaren erabilera sustatzeko politikak gartztea, ezpada txirrindulariek gero eta istripu gehiago dituztelako bide publikoetan, bide horietatik ibiltzea gero eta arriskutsuagoa delako haiarentzat.

Foru lege honetako xedapenak eman dira, hain zuzen ere, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoak eskumen osoa ematen diolako Foru Komunitateari bai lurraldearen antolamenduaren eta hirigintzaren arloan (44. artikulua) bai errepedeen eta bideen arloan ere (49. artikulua).

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Xedea.

Foru lege honek xede du oinarrizko arauak eta irizpideak ezartzea, bizikleten erabiltzaileei Nafarroako bide publikoetako zirkulazioa erraztera bideratuak, erabilera hori eragotzi edo oztopatzen duten oztopo guztiak kenduta eta zirkulazio librearen eskubidea ziurtatuta, bizikleta zernahitarako ere erabiltzen den: garraibide gisa, kirola egiteko edo aisiarako.

2. artikulua. Aplikazio esparrua.

1. Foru lege honek Nafarroako administrazio publiko guztiak behartzen ditu.

2. Foru lege honetako xedapenek ondoko kasuetan lotetsiko dituzte, betiere, administrazio horiek:

a) Hirigintzako planak eta ordenantzak, hirigintzako proiektuak, lurzoruaren erabilerari buruzko ordenantzak nahiz bide publikoak sortzeko edo berritzeko arauak taxutzen direnean.

b) Lurraldearen antolamenduari nahiz garraioari eta mugikortasunari buruzko plan orokorretan, baldin eta foru lege honetako xede diren arloetan eraginik badute.

c) Autobiak, errepideak, bideak eta, oro har, bide publikoak diseinatzeko eta egiteko proiektuetan.

3. artikulua. Definizioak.

1. Foru lege honen ondorioetarako, hiriko nahiz hiri arteko txirrindulari-bide izanen dira trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide segurtasunari buruzko araudiak halaxe definitzen direnak.

2. Foru lege honen ondorioetarako, txirrindulari-ibilbide izanen da txirrindulari-bideen eta elkar-guneen multzoa, bizikleten erabiltzaileei bide ematen diena espazio geografikoko puntu batetik beste batera segurtasunez joateko.

3. Foru lege honen ondorioetarako, txirrindulari-sare izanen da hiri jakin bat edo eremu geografiko bat hartzen duten txirrindulari-ibilbideen multzoa.

II. KAPITULUA

Txirrindulari-bideak diseinatzeko irizpide orokorrak

4. artikulua. Bizikletek soilik erabiltzeko diren txirrindulari-bideen neurriak.

1. Bide horiek, oro har, ondoko neurriak izanen dituzte alderik alde gutxienez ere: 1,50 metro

norabide bakarreko bideetan eta 2 metro bi norabideko bideetan. Hona salbuespenak eta kasu bereziak:

a) Bi norabideko bizikleta-erreien kasuan, zabalera metro muga batera murriztu ahalko da, baldin eta galtzadaren eskuineko bazterretik badoa, ibilgailuen kanpo aldeko zirkulazio erreia- ren ondotik. Salbuespenez, herri barruko bideetan, norabide bakoitzean ibilgailuentzako errei bakarra dutenetan, zabalera, kasuan-kasuan, 0,75 metrokoa izan ahalko da bidean estugune edo oztopo- ren bat baldin badago; halakoetan, bizikleta-erreia- ren zoladura galtzadako zoladurarenez bestelakoa, nabarmen bestelakoa, izanen da.

b) Txirrindulari-bidea alboko oztopoen ondotik badoa, esaterako arbola, kale-argi, paperontzi, eserleku edo horma baten ondotik, txirrindulari- bidearen ertzen eta oztopo horien artean 0,5 metro egonen da gutxienez ere. Zintarrien eta bizi- kleta-espaloien kanpoko ertza-eren artean ere gutxi- eneko distantzia hori bera egonen da, salbu eta ondoko letran xedatutakoa.

c) Txirrindulari-bidea ilarako aparkamendu- lerro baten albotik badoa, segurtasun tarte bat utzi beharko da, gutxienez ere 0,8 metrokoa, aparkale- kuaren zintarriaren eta txirrindulari-bidearen ertza- ren artean.

d) Bizikleta-espaloiak soilik jarri ahalko dira oinezkoentzat gutxienez ere 2 metroko zabalera- ko tarte utz daitezkeen espaloietan.

2. Txirrindulari-bideetako bihurtuneak diseina- tzean, bihurtunearen erradioak behar adinako zabalera izenen du, oro har ez baita izanen 10 metro baino gutxiagokoa. Ibilbideak ez du inolaz ere izanen angelu zuzeneko birarik.

5. artikulua. Erabilera partekatuko txirrindulari- bideen neurriak. Bizikleten eta bestelako ibilgailu- en erabilera partekatuko bideek, oro har, ondoko neurriak izanen dituzte alderik alde:

a) Autobus-bizikleta erreiek autobus errei arruntek baino 0,75 metro gehiago izanen dute gutxienez ere, eta gutxieneko zabalera ez da 4 metrotik beheitikoa izanen.

b) Erabilera partekatuko txirrindulari- eta oinez- ko-bideek 4 metroko zabalera izan beharko dute, gutxienez ere, alderik alde, nahiz eta hori ez den eragozpen izanen kasuan-kasuan 3 metrora murrizteko zabalera hori.

6. artikulua. Zoladurak.

1. Bizikletek soilik erabiltzeko diren txirrindulari- bideen zoladurek irristagaitzak izan beharko dute, ahal dela bituminosoak edo hormigoizkoak, eta

haien testura eta kolorea inguruko zoladura ez bezalakoa izanen da posible baldin bada, eta nahitaez baldin eta bizikleta-espaloia edo bidegorria baldin bada. Ahal dela, eta bestelako ingurua-barrek –esate baterako, ingurune historikoen kasuan– besterik agintzen ez badute, adreilu gorriaren kolorea erabiliko da, nazioartean onartua baitago txirrindulari-bideen bereizgarri gisa.

2. Landa eremuetako eta parkeetako txirrindulari-bideen kasuan, kare-lur trinkotuko zorua edo gisakoa erabili ahalko da.

3. Zoladurak diseinatzean, azalera-berdintasun handiena bilatuko da. Ahal den neurrian ekidinen da txirrindulari-bidearen barruan egotea hiri-elementuak, hala nola erregistroko estalkiak eta kainu-zuloak, eta, betiere, horiek kentzerik ez badago, txirrindulariaren erosotasuna eta segurtasuna ziurtatzeko moduan jarriko dira elementuok.

7. artikulua. Maldak.

1. Euri-uren hustuketa ziurtatze aldera eta putzuak sortzea ekidite aldera, txirrindulari-bideek % 2ko zeharkako malda izan beharko dute, eta posible denetan, gutxieneko % 1eko luzetarako malda.

2. Txirrindulari-bideek, oro har, ez dute % 4tik goitiko luzetarako malda izanen, nahiz eta kasuan-kasuan % 7ra bitartekoa izan ahalko den tarte jakin batzuetan, inolaz ere ez baitira izanen 40 metrotik goitikoak.

8. artikulua. Pasabideak.

Bizikleta-espaloien eta gainontzeko bideen arteko elkarguneetan bizikleta-espaloien alderik aldeko zabalera pasabideak gaituko dira. Pasabide horien gehieneko malda % 8koa izanen da. Pasabide horien kanpoaldeko zintarriek alakaturik egon beharko dute, eta ekidin eginen da zentimetro bat baino gehiagoko koska zuzenak edo mailak egotea pasabidearen eta galtzadaren arteko lotu-nean.

9. artikulua. Maila bereko elkarguneak.

1. Bizikleta-espaloien kasuan, gainontzeko bideen maila bereko elkarguneak diseinatzean, ahal dela, bizikleten trafikoaren faseak oinezkoen trafikoaren faseetara moldatuko dira, txirrindularientzako pasabideak gaituko baitira, oinezkoen pasabideetatik bereiz.

2. Bizikleta-errien kasuan, berriz, elkarguneak diseinatzean, ahal dela, bizikleten trafikoaren faseak ibilgailuen trafiko orokorraren faseetara moldatuko dira.

3. Gainontzeko kasuetan bidearen ezaugarri orokorrei erreparatuko zaie elkarguneak diseinatzeko.

10. artikulua. Arrapalak eta tunelak.

1. Baldin eta txirrindulari-ibilbideek edo -bideek oztopoak gainditzeko edo maila ezberdinetako pasabideak egiteko arrapalak badituzte, arrapala horien malda ez da % 7tik goitiko izanen. Arrapala horiek zein txirrindulari-bidetan dauden, bide horrexen alderik aldeko zabalera eta zoladura izanen dute.

2. Txirrindulariak igaro beharreko tunelek 3,75 metroko zabalera izanen dute gutxienez ere, eta 12 metroko luzera estalia gehienez ere. Tunelen gehieneko malda ez da % 5etik goitiko izanen, eta gutxieneko galiboa 3,5 metrokoa izanen da.

III. KAPITULUA

Txirrindulari-sareak, -ibilbideak eta -bideak garraio sistema orokorrean sartzeari

11. artikulua. Txirrindulari-ibilbideak diseinatze-ko irizpide orokorrak.

Txirrindulari-sareak eta -ibilbideak jarraitutasun, eragingarritasun eta bideko segurtasun printzipio orokorrekin bat diseinatuko dira. Txirrindulari-bideak txirrindulari-ibilbide batean sartu beharko dira, hain zuzen ere joan-etorrien behar adinako eskaria duen edo aurreikusten den bi puntu geografiko edo gehiago elkartzeko dituen txirrindulari-ibilbide batean. Txirrindulari-ibilbideak, berriz, eremu geografiko jakin bateko joan-etorrien beharrezan nagusiak asetzen dituzten txirrindulari-sareetan sartzera jo behar da.

12. artikulua. Autobiak.

Ondoko neurriak hartuko dira, txirrindulariek Nafarroan barrena ibiltzeko duten eskubidea babeste aldera eta trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bideko segurtasunari buruzko araudiarekin bat:

a. Autobiek gertuko edo ordezko bide paraleloak izan beharko dituzte, txirrindulariek erabiltzeko modukoak. Bide horiek izan daitezke zerbitzu-bideak berak, animaliek tiratutako ibilgailuekin, ziklomotorrekin, elbarrien kotxeekin eta autobietan zirkulatzea baimendua ez duten beste ibilgailuekin partekatutako, baldin eta behar bezalako jarraitutasuna badute.

b. Autobien arteko eta autobien eta beste errepide batzuen arteko elkarguneetan, txirrindularientzako pasabide bereziak gaituko dira, aurreko letran aipatutako beste ibilgailu batzuekin partekatutako ahalko direnak, behar bezala seinaleztatuak eta

erabiltzaileen segurtasuna babesteko diseinatuak. Baldin eta maila ezberdinetako arrapala edo tunel bidezko pasabideak badira, foru lege honetako 10. artikuluan ezarritako irizpideetara joko da.

13. artikulua. Ingurabideak eta saihesbideak.

Hiriguneetako ingurabideek edo saihesbideek, honen aurreko artikuluan ezarritako baldintzak betetzeaz gain, txirrindularentzako eta oinezkoentzako pasabideen sistema bat izan beharko dute, txirrindulariak eta oinezkoak segurtasunez gurutatu ahal daitezen autobiarene alde batetik bestera, eta horiei ziurtatuko zaizkie saihesbide-autobiarene bi aldeetako bide publikoen eta bideen sarearen jarraitutasuna eta irisgarritasuna.

14. artikulua. Errepideak.

Errepide guztiek, salbu eta toki errepideek, izan beharko dituzte metro bateko gutxieneko zabalerako bazterbideak, txirrindulariak segurtasunez ibiltzeko moduan zolatuak. Txirrindularien trafiko handia baldin badago edo aurreikusten baldin bada eta txirrindulari-bide paralelorik ez baldin badago, errepideak bizikleta-bazterbideak izan beharko ditu, behar bezalako seinalizazio bertikalarekin eta horizontalarekin. Biondak eta alboko bestelako babesgarriak halako moduz diseinatuko dira non ez diren egonen bazter edo ertz ebakitzailak eta arriskutsuak izan litezkeenak.

15. artikulua. Errepide eta garraio planak.

Errepideei eta garraioari buruzko legedia garatzeko eta aplikatzeko egiten diren planek txirrindularien eta oinezkoen trafikoari buruzko diagnostia eta aurreikuspenak jaso beharko dituzte, bai eta aurreikuspen horien araberrako txirrindulari-sare bat garatzeko jarraibideak ere. Orobat jasoko dituzte bizikletaren eta garraio publikoaren arteko intermodalitatea errazteko jarraibide egokiak, dela bizikletentzako aparkalekuak eta kontsignak aurreikusita dela garraio publikoko ibilgailuetan bizikletak eramateko tokiak erreserbatuta.

16. artikulua. Lurraldearen eta hirigintzaren antolamenduari buruzko planak.

1. Lurraldearen antolamenduari buruzko planek eta lurralde ekintzako plan zuzendariak –lurraldearen eta hirigintzaren antolamenduari buruzko planetan aurreikusiek– txirrindulari-sareen eiteari buruzko xedapenak jasoko dituzte garraio eta komunikazio sistemari buruzko xedapenen artean, foru lege honetako xedapenekin bat.

2. 3.000 biztanle baino gehiagoko udaletako udal planek ondokoak jaso beharko dituzte:

a. Udalaren beharizanen araberrako txirrindulari-sare baten diseinua, bai eta sare hori diseinatzeo irizpide bateratuak ere, foru lege honetan ezarritakoarekin bat.

b. Sarerrako lurzoruaren erreserba, hiri mugikortasunari buruzko plangintzaren esparru orokorren barruan.

c. Bizikletentzako aparkalekuez hornitzeari buruzko araudia.

17. artikulua. Kirol azpiegiturako zentroak eta ikastetxeak.

Nafarroako ikastetxe eta kirola egiteko zentro guztiek eskainiko dute bere instalazioen barruan bizikletak aparkatzeko azpiegitura egokia, erabiltzaileen balizko eskaria asetzeko adinakoa.

Xedapen gehigarria.

Hemezortzi hilabeteko epean, Nafarroako administrazio publikoek aldaketak egiten dituzte hirigintza nahiz lurralde antolamenduko erregelamenduetan, foru lege honetan xedatua garatu eta betetzeko beharrezkoak direnak egin ere.

Xedapen indargabetzailea.

Indarrrik gabe uzten dira foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

Azken xedapena.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lehentasunez jar ditzan abian eta Osasunari buruzko Plan Estrategikoan sar ditzan Nafarroako Odol-transfusioen eta Zelulen eta Ehunen Zentroa izeneko fiskalizazio txostenean Comptos Ganberak eginiko gomendioak.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lehentasunez jar ditzan abian eta Osasunari buruzko Plan Estrategikoan sar ditzan Nafarroako Odol-transfusioen eta Zelulen eta Ehunen Zentroa izeneko fiskalizazio txostenean Comptos Ganberak eginiko gomendioak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena

Iragan legegintzaldian Aralar parlamentu-taldek eskatuta, Comptos Ganberak Nafarroako Odol-transfusioen Zentroari buruz eginiko txostenean egoeraren azterketa zehatza egin du. Txosten hori, funtsean, bat dator zentro horretako langileek agertutako kezkekin eta informazio orokorra eta

baliotsua ematen du, Parlamentuan lan tresna gisa baliatzeko. Comptos Ganberaren txostenean helburu batzuk ezartzen dira:

1) Egiartzatzea zentroaren funtzionamenduak betetzen ote dituen ezarritako baldintza eta betekizun teknikoak, eta baldintza horiek kalitatezko sistema bati erantzuten ote dioten, indarrean dauden arauei jarraikiz.

2) 2006 aurrekontuen betetzea aztertzea.

3) Egiartzatzea Nafarroako Odol-transfusioen Zentroaren jarduera ekonomiko eta finantzarioak legezkotasun-printzipioa errespetatzen ote duen.

Bestalde, Parlamentuaren eskaerari eta ezarritako fiskalizazio-helburuei dagokienez, Comptos Ganberak ondorioztatu du foru administrazioak eta Odol-transfusioen Zentroak lehentasunez ekin behar dietela ondokoei:

- Nafarroako Hemoterapia Plana onetsi eta abian jartzea.

- Beharrezkoak diren neurriak hartzea zentro horretako langileen egoera eta lan giroa hobetze aldera.

- Nafarroako Odol-transfusioen Zentroaren informazio eta kudeaketa sistema garatzea eta abian jartzea.

Comptos Ganberaren txostenean argi eta garbi esaten da: "Nafarroan ez dago zerbitzu publikorik zelulen eta ehunen arloko jarduerak eta prozesuak koordinatu eta zentralizatzen dituenik, eta Osasunbidearen aukera izan da beharrianak sortu ahala asetzea. Ganberaren iritzian, aztertu behar da zelulei eta ehunei buruzko plan bat prestatzea, odol-emateari eta transfusioei buruzko beste batekin batera, Nafarroan ez baitago halakorik. Plan horretan ezarri beharko dira lehentasunak, helbu-

ru orokorrak, berariazkoak, errealak eta neurgarriak.”

Nafarroako Odol-transfusioen Zentroko plantillari dagokionez, txostenaren arabera lanera ez agertzea bikoiztu egin da 2005etik aurrera; hala, 2006an, %15,58koa izan zen eta 2007an, berriz, %24koa.

Lan giroari eta Nafarroako Odol-transfusioen Zentroko langileen arteko harremani dagokionez, egoera korapilatsua atzeman da, langileengan eta maila guztietan eragina duena.

Osasunbideko Laneko Arriskuen Prebentzioa Sustatzeko Zerbitzuak esku hartu zuen, kudeatzaileak eta zuzendariak hala eskatuta, lan giroa okertu egin baitzen, eta txosten bat prestatu zuen, non 14 prebentzio-neurri proposatzen ziren. Fiskalizazioaren egunean atzeman da iradokitako neurrietatik bat ere ez dela abian jarri.

Bestalde, parlamentu-talde honentzat deigarriak dira Osasun kontseilariak Comptos Ganberako txostenari aurkeztutako alegazioak. Odol-emaileen Elkarteari buruzko atala eta Laborategiari eta analisiei buruzko atalaren 1. eta 2. idatz-zatiak aipatzen ditu, eta, halaber, kontseilari andreak Zelulen eta Ehunen Zerbitzuren kudeaketa eta funtzionamendua aipatzen dituen idatz-zatiari buruzko alegazioa aurkeztu du; hain zuzen, ospitaleei baimeak emateari dagokionez, bitxia bada ere.

Baina Osasun Departamentuaren alegazioetan ez dira aipatu ere egiten Comptos Ganberak lehentasunezko zat jotzen dituen gaiak, hala nola:

- Nafarroako Hemoterapia Plana onestea.
- Laneko giroa hobetzeko neurriak hartzea.
- Odol-transfusioen Zentroaren informazio eta kudeaketa sistema integral bat abian jartzea.

Odol-emateari eta transfusioei buruzko plana-ekin batera zelulei eta ehunei buruzko beste plan bat prestatzeko aukera aztertzea, jarduera eta koordinazio esparru argia izateko osasun planen barruan.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Comptos Ganberak *IV. atalean –Iruzkina, ondorio eta gomendio orokorrak– Odol-transfusioen Zentroko plangintzari, programazioari, antolamenduari eta langileen egoerari buruz* eginiko gomendioak abian jar ditzan, lehentasunez eta laster Legebiltzarrean aurkeztu beharreko Osasun Plan Estrategikoarekin batera.

Iruñean, 2008ko azaroaren 21ean

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gaueko aisiako lokaletako atezainen jarduna arautzeko foru lege proiektu bat aurkez dezan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita gaueko aisiako lokaletako atezainen jarduna arautzeko foru lege proiektu bat aurkez dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Samuel Caro Sádabak, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko eledunaren ondokoak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen da gaueko aisiako lokaletako atezainen jarduna arautzeko foru lege proiektu bat aurkez dezan, Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eztabaida eta onets dadin.

Zioak

Duela gutxi, gazte bat erail dute Madrilgo diskoteka batean, eta horrek agerian utzi du gaueko atezainei buruzko araudi falta.

Nahiz eta Nafarroan mota horretako lokalen kopurua beste autonomia erkidego batzuetan

baino txikiagoa izan, ez dago arlo horri buruzko araudirik, eta, gure ustez, beharrezkoa da nahi gabeko egoerei aurrea hartzea, dagokion foru araudiaren bidez. Hori dela eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondo-ko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu-a premia-tzen du 2009ko lehen hiruhilekoan egu-neko zein gaueko aisiako lokaletako atezainen jar-duna arautzeko foru lege proiektu bat aurkez dezan Legebiltzarrean eta, horretarako, kontuan har ditzan legeak ukituko dituen eragile sozial eta ekonomikoak.

Iruñean, 2008ko azaroaren 25ean

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premia-tzen da espetxe era-kundeekiko hitzarmen baten bidez berma dezan mediku psikiatra bat egotea Iruñeko espetxean, buruko gaixotasuna duten presoak artatze aldera.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita espetxe erakundeekiko hitzarmen baten bidez berma dezan mediku psikiatra bat egotea Iruñeko espe-txean, buruko gaixotasuna duten presoak artatze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziale-an argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkez-teko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko foru parla-

mentari Ana Figueras Castellano andreak, Lege-biltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babe-sean, ondoko mozioa aurkeztu du, dagokion batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena:

Orain dela denbora gutxi, Salhaketa elkarteak txosten bat bidali du Legebiltzar honetara, "*Buruko gaixotasuna Iruñeko espetxean: Azterlana eta pro-posamenak. 2008. urtea.*" izenburua duena.

Espetxearekin zerikusia duen parlamentu-lana-ri dagokionez, ez gara zerotik abiatzen, joan den legegintzaldian lantalde bat sortu baitzen espetxe berriaren eraikuntza zela-eta (bidenabar esanda, gaur den egunean horri buruz ez dugu inolako berririk), eta horren ondorioz txosten bat egin zen, espetxe berrirako ezarri beharko lirakeen gizar-te, osasun eta hezkuntza neurriei buruzkoa.

Salhaketa elkarteak prestatuturiko txostenak zor-tzi ataletan azaldu, jaso eta proposatzen ditu haiek eginiko lanaren arrazoiak, espetxeetako osasun-egoerari buruz muntadun diren txostenak, kasu dualak pairatzen dituztenen egoera zeha-tzak, lege-markoa eta Iruñeko espetxeko buruko

osasunaren alorrean bai Parlamentuak bai Gobernuak daukaten eskumena.

Halaber, badago atal bat, aztergai dugunarekin duen loturarengatik aipatu beharrekoa: espetxeetan buruko gaixotasunak dituztenei laguntza integrala emateko esparru-programa. Oso laburbilduta, funtsezko helburu gisa honako hiru hauek hartzen dituela esan daiteke:

- Osasuna zentzu hertsian ulertuta berreskuratzea

- Aldaketa eta birgaitze prozesua, buruko nahasteek pertsonarengan dauzkaten eragin negatiboak gainditu ahal izateko.

- Tratamendu, zainketa eta laguntzaren jarraitasuna, espetxeratuta dagoen buruko gaixoak espetxea utzi ondorenerako.

Dokumentuak esaten duena erakustearren, Espetxeko gizarte Zerbitzuaren 2007ko oroitidazki-ko datuetan honako hau esaten da buruko gaixoei eta gaixo dualei buruz: "Guztizko kasu-kopurua 775 izan zen, eta horrek esan nahi du aurreko urtean baino % 38 gehiago direla pertsonak, urte horretan 562 izan baitziren".

Bestalde, helarazi zaigun dokumentuan, osasun-arloko zenbait profesionalak aitortzen dute Iruñeko espetxeko egoera, buruko osasunari dagokionez, txarra dela, espetxean buruko osasuneko arazoek daukaten prebalentziarengatik ez ezik, horri dagokionez zer edo zer egin ahalko luketenei arazo hori gutxi axola izateagatik ere.

Sumatutako beharrezane buruzko hain gogoeta mingots eta, aldi berean, errealista ikusirik, IUko

foru parlamentarien elkarteari ezinezkoa zaio besoak antxumatuta gelditzea; horrenbestez, eta aurreko legegintzaldian eginiko lanaren lekukoa hartuz, Legebiltzarrari proposamen bat aurkeztu nahi dio.

Erabaki proposamena:

Espetxe-alorreko profesionalak bat datoz zenbait puntutan, aintzat hartu beharrekoak direnak, buruko osasunari dagokionez Iruñeko espetxean dauden zailtasunak direla eta.

1. Osasun-zerbitzuek ez daukate mediku psikiatrarik, eta figura hau ezinbestekoa da espetxe batean.

2. Iruñeko espetxeko psikologoak lan eskerga egiten du; hala eta guztiz ere, Iruñeko Abokatuen Elkargoak zerbitzu horri buruz dio ez dela behar bezalako aldizkakotasunez eta modu orokorrean ematen.

Azaldutako guztiagatik:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du espetxe erakundeekiko hitzarmen baten bidez berma dezan mediku psikiatra bat egotea Iruñeko espetxean, buruko gaixotasuna duten presoak artatze aldera, prebentzio-programak eginez, gaixoaren medikazioaren jarraipena eginez, talde-terapiak edo egokitzen jotzen dituen bestelako ordezkioak praktikan jarritz eta gaixoaren tratamenduan itxaronaldiak laburtuz; horrenbestez, espetxeratuek beren buruaz beste egitea zenbait kasutan saihestea lortzeko.

Iruñean, 2008ko azaroaren 24an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da urte bakoitzeko martxoaren 31 baino lehen egin daitezten Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuaren deialdi guztiak, baldin eta instituzio, erakunde edo pertsonak ukitzen badituzte.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita urte bakoitzeko martxoaren 31 baino lehen egin daitezten Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuaren deialdi guztiak, baldin eta instituzio, erakunde edo pertsonak ukitzen badituzte.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hama-bietan.

Iruñean, 2008ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Samuel Caro Sádabak, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko eledunaren ondokoak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da urte bakoitzeko martxoaren 31 baino lehen egin daitezten Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuaren deialdi guztiak, baldin eta instituzio, erakunde edo pertsonak ukitzen badituzte.

Zioen azalpena

Nafarroako Parlamentuak urtero departamentu bakoitzerako onetsitako aurrekontuaren exekuzioa indar politiko guztien lehentasunezko helburua da.

Hori gerta dadin, ukituta dauden edo interesa duten instituzio, erakunde eta partikularrek aukera eduki behar dute deialdi bakoitzaren terminoak eta norainokoa ahal bezain laster ezagutzeko, behar adina denbora izan dezaten haietan inplikaturiko ekintzak aurrera eramateko.

2008ko adibide batzuk badaude, gertatu baita azaroaren 27an oraindik ere ebatzi gabeko deialdi batzuk badaudela, urtea amaitzeko ia 30 egun baizik geratzen ez direnean. Hori dela eta, horri buruzko ekimenen bat abiatu beharra dago.

Bestalde, Nafarroako aurrekontu orokorrak behar diren garaietan eta moduan onesteak, urte bakoitzeko urtarrilaren 1a baino lehen, azken urteetan egin den bezala, gauzak erraztu egiten ditu hein handi batean, eta aukera ematen du aurrekontu horren onespenean berantiarren ondorioz geroratu ohi zen zeregina aurreratzeke.

Hori guztia dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du, Kultura Batzordean eztabaidatu eta onets dadin:

1. Nafarroako Parlamentuan Nafarroako Gobernua premiatzen du urte bakoitzeko martxoaren 31 baino lehen egin daitezten Kultura eta Turismo Departamentuaren deialdi guztiak, baldin eta instituzio, erakunde edo pertsonak ukitzen badituzte.

2. Kultura eta Turismo Departamentuak, kasu berezietan, deialdiren bat geroratu ahalko du, betiere haren berezitasuna dela-eta beharrezkoa bada eta hori justifikatzeko arrazoiak argi azaldu ondoren.

Iruñean, 2008ko azaroaren 27an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jarduketa protokolo bat sor dezan, osasun arloko profesionalek erasoak jasaten dituztenerako.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita jarduketa protokolo bat sor dezan, osasun arloko profesionalek erasoak jasaten dituztenerako.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du. Haren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jarduketa protokolo bat sor dezan, osasun arloko profesionalek erasoak jasaten dituztenerako.

Zioen azalpena

Gaur egun, osasun arloko profesionalek eraso fisiko/psikologikoko egoerak pairatu ohi dituzte etengabe beren lanbidean. Tamalez, osasunaren arloko edozein profesionalek paira dezakeen egoera da.

Gure erkidegoan horrelako kasuetatik asko ez dagoen arren, ezin dugu gaia alde batera utzi eta,

horrenbestez, gure ustez osasun arloko langileen-tzako berariazko protokolo bat sortu beharko litzateke.

Protokolo horrek, besteak beste, honakoak jaso beharko ditu:

- Erasoen erregistro bat ezartzea, arrisku-eremuen "mapa" bat diseinatu ahal izateko.

- Balizko aurreneurriak aintzat hartzea.

- Arretaren arloko hobekuntza batzuk aztertzea, gatazka gutxiago gerta daitezen.

- Eraso baten aurrean jarduteko mekanismoen deskribapen xehatua jasotzea.

- Profesionalei komunikazio-teknikei buruzko heziketa ematea, gatazka-egoerak ahal den guztian saihesteko.

- Jarduteko protokoloa eta ezarritako neurriak osasun arloko langileei eta herritarrei ezagutzera emateko plan bat egitea.

Gure ustez, Nafarroako Gobernuaren beraren ardura da bere langileak behar den bezala babestea erasoak gertatzen direnerako, eta, jakina, haiei behar diren tresnak ematea erasoren bat gertatzen denerako eta eraso horien larritasuna gutxitzeko.

Horregatik guztiagatik, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak honako mozioa aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du arduketa protokolo bat sor dezan, osasun arloko profesionalek erasoak jasaten dituztenerako.

Iruñean, 2008ko azaroaren 27an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berehala egin dezan eskola garraiorako eta jantokirako beken deialdia, hizkuntza eredua dela-eta joan-etorrian ibili behar dutenentzat.

HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, 2008ko azaroaren 25ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da berehala egin dezan eskola garraiorako eta jantokirako beken deialdia, hizkuntza eredua dela-eta joan-etorrian ibili behar dutenentzat".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2008ko azaroaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berehala egin dezan eskola garraiorako eta jantokirako beken deialdia, hizkuntza eredua dela-eta joan-etorrian ibili behar dutenentzat

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berehala egin dezan eskola garraiorako eta jantokirako beken deialdia, hizkuntza eredua dela-eta joan-etorrian ibili behar dutenentzat, eta dirulaguntza horien deialdia berma dezan aurrekontuan beharrezkoa den diru kopurua jarrita, sortzen dituzten arazoak irauten duten bitartean.

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hizkuntza desberdinetan idatz ditzan Arellanoko villa erromatarreko interpretazio zentroan bisitarien eskura jartzen diren informazio guztiak, bai eta Nafarroako eskaintza turistikoan sartuko diren guztiak ere.

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ETA TURISMO BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hizkuntza desberdinetan idatz ditzan Arellanoko villa erromatarreko interpretazio zentroan bisitarien eskura jartzen diren informazio guztiak, bai eta Nafarroako eskaintza turistikoan sartuko diren guztiak ere".

Legebiltzarreko Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordeak 2008ko azaroaren 26an egindako bileran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2008ko urriren 24ko 93. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko azaroaren 27an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Adierazpen instituzionala, Hiesaren Kontrako Nazioarteko Eguna dela-eta

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2008ko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Duela 20 urtetik hona, Hiesaren kontrako borrokaren Nazioarteko Eguna ospatzen da abenduaren 1ean, herritarrak gaixotasun horretaz eta prebentzioaren garrantziaz kontzientziatzeko asmoz.

Egun honetan, Nafarroako Parlamentuak, aurreten ere, berriro goraiatu nahi du ekarpen oso positibo gisa administrazio publiko guztiek, osasun arloko profesionalek eta, bereziki, gobernuz kanpoko erakundeek nahiz gizarte zibileko beste egitura batzuek (hala nola Hiesaren aurkako Nafarroako Batzorde Herritarrak eta Sare Elkarteak) gaixotasun hau desagerrarazteko eginiko lana.

Nazioarteko jardunaldi honek pentsarazi behar digu, beste behin ere, gaixotasun honen garapena izaten ari den eragina eta ondorio kaltegarriak herrialde guztietan, bai eta gizarte ongizate maila altuenak dituztenetan ere. Ondorio horiek eskatzen dute hiesari lehentasuna ematea gobernuen eta nazioarteko erakundeen agendetan. Beharrezkoa da mundu osoaren kontzientziazioa. Mundu osoak batera jardutea pandemia honek dakarren erronkaren aurrean. Herrialde garatuetakoa gober-

nuen konpromisoak beharrezkoak ditu adostasuna eta gaixotasun horren aurka borrokatzeko politika komunak ezartzea, eta, hala, beharrezkoak diren neurriak eta kontusailak ezarri behar dira, ez soilik prebentziorako eta osasun laguntzarako, bai eta farmazia arloko ikerketarako ere, txerto bat eta mikrobiziden garapena lortze aldera.

Horrekin lotuta, gizarte gisa, poztu egin behar dugu txerto bat lortzeko ahaleginetan izandako aurrerapen zientifikoengatik, oraindik bidearen amaiera urrun badago ere.

GIBaren eta hiesaren inguruko mobilizazio globala hasi zeneko hogeigarren urtemugan, nabarmendu nahi dugu beharrezkoa dela GIBa duten gaixo askok jasaten duten estigmatizazioa eta bazterkeria deuseztatzea.

Ospakizun hau baliatu nahi dugu inplikaturiko eragile guztiei dei egiteko, egiten duten lanaren helburu nagusia izan dadin gizarte bidezkoago eta berdintasunezkoago bat lortzea, hiesa duten pertsonen lan- eta bizi-baldintza duinak bermatze aldera, eskemak aldatuz eta estigmatizazioa eta bazterkeria deuseztatuz.

Iruñean, 2008ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

“Eskubide guztiak pertsona guztientzat: konpromisoa berritzea” adierazpen instituzionala, Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren 60. urteurrena dela eta

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2008ko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

Orain 60 urte, estatuek “aurrerapen soziala sustatzeko eta bizi-maila goratzeko” konpromisoa hartu zuten, askatasunaren kontzeptu zabalago baten parte bezala” eta hauxe aitortu zuten: “gizakiek beldurra eta miseria gaindituko dituzte baldin eta pertsona guztiek eskubide guztiez gozatuko duten baldintzak sortzen badira.”

1948ko abenduaren 10ean, Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala onartzerakoan, estatuek

konpromisoa hartu zuten giza-eskubideak beren osotasunean -zibilak, ekonomikoak, politikoak, sozialak nahiz kulturalak- errespetatzeko eta betearazteko, eta horrela bizi-maila duin baterako eskubidea aldarrikatu zuten.

Giza eskubide guztiak unibertsalak dira, zati-zati, elkarren artean mendekotasuna dute eta ez dago eskubiderik besteekiko lehentasuna duenik. Ondorioz, nazioarteko komunitateak eskubide guztiak orokorrean tratatu behar ditu, justiziaz eta zuzentasunez, berdintasunez eta guztiei balio bera emanez.

Adierazpen askatasunaz guztiz gozatzeko beharrezkoa da hezkuntzarako eskubidearen aldeko esfortzuak sustatzea. Bizitzeko eskubideaz gozatzeko beharrezkoa da haurren heriotza-tasa, epidemiak eta malnutrizioa murriztea.

Dena den, Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren agindua eduki arren, soilik 2007an, 1.252 pertsona exekutatu zituzten 24 herrialde desberdinetan, 81 herrialde baino gehiagotan tortura eta tratu txarrei buruzko informazioa bildu zen eta 45 herrialdetan kontzientzia presoak diren gizon-emakumeak daude atxilotuta. Gainera, 854 milioi pertsonak gosea pairatzen dute eta 1.100 milioi pertsonak ez dute behar bezalako etxebizitzarik. Hautetatik, erdia baino gehiago emakumeak dira.

Hirurogei urte geroago betetzeke dago oraindik pertsona guztientzako giza eskubide unibertsal eta zatiezinen agindua, bizi maila duinerako esku-

bidea eta gizaki askearen ideala betetzeko ezinbestekoak direnak.

Horregatik guztiagatik, Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak 60 urte betetzen dituen honetan:

1. Erakunde publiko garen aldetik, giza eskubideekiko konpromisoa berrestea hitzartzen dugu, baita haien unibertsaltasuna, zatiezintasuna eta elkarrekiko mendekotasuna modu eraginkor batean defendatzeko ere, Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak ezarri bezala.

2. Defentsa hori gure eguneroko erakundelanaren zati izanen da, eta, horretarako, beharrezkoak diren baliabideak ezarriko dira eta biktimei eta mundu osoan Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala egi bilaka dadin lanean ari diren giza eskubideen defendatzaileei babesa emango die.”

Iruñean, 2008ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Adierazpen instituzionala, Ignacio Uria Mendizabal enpresaburu azpeitiarraren erailketa gaitzesteko

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2008ko abenduaren 4an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“ETA talde terroristak Ignacio Uria Mendizabal euskal enpresaburua erail zuen atzo Azpeitian. Erailketa berri honen aurrean, 2008ko laugarrena baita, Nafarroako Parlamentuak adostu du:

Lehena: Nafarroako Parlamentuak adierazten du erabat gaitzesten duela Ignacio Uria Mendizabal euskal enpresaburua erailketa makurra, atzo ETA talde terroristak Azpeitian egina.

Bigarrena: Nafarroako Parlamentuak elkartasuna adierazi nahi die biktimaren familiari, bere lagunei eta Azpeitiko herri osoari, atsekabez sufritzen ari baitira Ignacio Uria Mendizabalen galera.

Hirugarrena: Nafarroako Parlamentuak bat egingen du erakunde publikoek terroristen mehatxua, estortsioa eta atentatuak jasaten dituzten enpre-

sariei ematen dieten ahobatezko babesarekin eta ETAREN presioaren xantaiari amore ez ematean erakusten duten jarrera ausartarengatik adierazten dieten aitorenarekin.

Laugarrena: Nafarroako Parlamentuak ETARI eskatzen dio hiltzeari utz diezaion eta armak entrega ditzan. Demokraziako 30 urteotan, indarrean dagoen sistema konstituzionalaren pean, ETA ez du lortu mina zabaltzea besterik, bere fundamentalismoa eta metodo diktatorialak direla-eta; izan ere, heriotza-zigorra ezartzen die biktima errugabeei eta gizartearen aurrerabide ororen aurka agertzen da. Indar demokratikoen bat egiteak, segurtasun indarren eta kidegoen jardunaren eraginkortasunak eta justiziaren ekintzak lortuko dute ETAK espetxean amaitzea.”

Iruñean, 2008ko abenduaren 4an.

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

F saila:
GALDERAK

Galdera, jakiteko ea nork ordainduko dituen Martzillako gaztelua zaharberritzeko obrak.*PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko ea nork ordainduko dituen Martzillako gaztelua zaharberritzeko obrak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2008ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurak, Legebiltzarreko erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nork ordaindu behar ditu Martzillako gaztelua zaharberritzeko obrak?

Iruñean, 2008ko azaroaren 24an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, NA-6900 errepideko eta NA-6710 errepideko tarte jakin batzuk asfaltatze aldera betetako gastuari buruzkoa eta gastua zer kontusaili egotzi zaion jakitekoa.*JOSÉ MARÍA VÁZQUEZ ROYO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José María Vázquez Royo jaunak aurkeztutako galdera, NA-6900 errepideko eta NA-6710 errepideko tarte jakin batzuk asfaltatze aldera betetako gastuari buruzkoa eta gastua zer kontusaili egotzi zaion jakitekoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José María Vázquez Royok, Legebiltzarreko Erregelamenduko 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Zioak

2008ko aurrekontu-ekitaldian, asfaltatze-zereginak gauzatu dira Nafarroako Foru Komunitateko errepede hauetan:

- NA-6900, Fiterotik N-113ra bitartean.
- NA-6710, Murchantetik NA- 6830ra bitartean.

Hori dela-eta, ondoko galderak aurkeztu ditugu:

– Zenbatekoa izan da bi errepede horietako asfaltatze-lanak egiteko bete den gastua? Errepede horietako bakoitzerako gastua bereizita zehatz bedi.

– Bi kasu horietan, asfaltatze-gastua zein kontusaili egotzi zaio?

Iruñean, 2008ko azaroaren 25ean

Foru parlamentaria: José M.^a Vázquez Royo

Galdera, Leitzako Maxurrenea etxeari buruzkoa.*AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Leitzako Maxurrenea etxeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

2002az geroztik, hau da, Nafarroako Gobernuak eta Barne Ministerioak Leitzako Maxurrenea etxeari buruzko akordioa sinatu zutenetik, Nafarroako Gobernuak diru-kopuru oso garrantzitsua jaso du Barne Ministerioarengandik (2006tik 2008ra bitartean, 62.586 euro), errentamendu kontzeptuan.

Nafarroako Gobernuak 2002ko otsailaren 2an eginitako bilkuran sinaturiko akordio horretako 6.

puntuak 2. lerrokadan dioenez, errentamendutik lortutakoaren aurrekontu-kontabilizatzea kontusail beregain batean egingen da, Hezkuntza eta Kultura Departamentuari (gaur egungo Hezkuntza Departamentuari) atxikirik, eta dirusarrerak erabiliko dira dohaintza-emailearen nahia betetze aldera. Izan ere, Nafarroako Foru Diputazioari 1978ko azaroaren 17ko eskritura publikoaren bitartez eman zitzaion etxearen jabetza, baldintza bakar baten pean, zeina baita etxe hori Leitzako lanbide-eskola ikasleentzako egoitza-barnetegi edo eskola-etxe gisa erabiltzea, edo Diputazioak komenigarritzat jotzen duen beste edozein xedetarako, ongintzaren eta irakaskuntzaren arloan.

Martxoaren 4ko 26/2005 Foru Aginduaren arabera (2005eko martxoaren 9ko NAO), garai hartan Hezkuntza eta Kultura Departamentua zenak proposatzen zuen, baldin eta etxearen erabilera aldatzen bazen, lorturiko ordainsariak erabiltzea Amazabal BHIaren barrenean kokaturiko antzinako mutil-egoitza birmoldatzeko gastuak ordaintzeko.

Akordioak gogorarazten du errentaria izanen dela eraikinaren mantenimenduari dagokionaren zuzeneko arduraduna. Kontuan izanik zein den Nafarroako Gobernuak Maxurrenea etxearen errentamenduarengatik jasotako zenbatekoa, parlamentari honek hauxe jakin nahi luke:

1. Zer inbertsiotan eta non erabili da 2002tik gaur arte errentamenduarengatik jasotako dirua?

2. Lorturiko diru-ordainsarrietatik, zenbat diru erabili da Amazabal BHIaren barrenean kokaturiko antzinako mutil-egoitza birmoldatzeko gastuak

ordaintzeko? Antzinako mutil-egoitza birmoldatzeko gastuak ordaintzeko erabilitako diru-kopuruen xehakapena.

3. Lorturiko dirusarreretatik, zenbat diru erabili da dohaintza-emailearen nahia betetzeko? Maxu-

rrenea etxearen dohaintza-emailearen nahia betetzeko erabili diren diru-kopuruen xehakapena.

Iruñean, 2008ko azaroaren 25ean.

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, jakiteko ea zergatik gelditu den Sunbillako Udala bigarren urtez jarraian abeltzaintzako toki azpiegiturak hobetzeko dirulaguntzetatik kanpo.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko ea zergatik gelditu den Sunbillako Udala bigarren urtez jarraian abeltzaintzako toki azpiegiturak hobetzeko dirulaguntzetatik kanpo.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emandako maiatzaren 2ko 197/2008 Foru Aginduaren bitartez ezarri ziren abeltzaintzako toki azpiegituren hobekuntzarako laguntzak emateko 2008-2013 epean aplikatuko diren arauak, eta 2008rako deialdia onetsi zen.

Landa Garapeneko zuzendari nagusiak emandako irailaren 1eko 1507/2008 Ebazpenaren bitartez, arautu zen 2008ko ekitaldirako deialdiko abeltzaintzako toki azpiegituren hobekuntzarako laguntzen ematea.


1507/2008 Ebazpen horren hirugarren puntuak dio: "Toki entitate hauei laguntza ukatzea aurrekontu-krediturik ezagatik (7.8 artikulua)"

Ukoa jasotako eskaeren artean dago Sunbillako Udalarena, eta parlamentari honek ondoko galdera egin nahi du, idatziz erantzun dakion:

Zer arrazoi direla-eta geratu da eman diren dirulaguntzak jaso gabe Sunbillako Udala, bi urtez segidan? Uko horri buruzko xehetasunak jakin nahi nituzke.

Iruñean, 2008ko azaroaren 26an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonia *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 47,00 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,25 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,40 »	